

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

2961

EBAZPENA, 2026ko ekainaren 16koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, gordailutu eta argitaratzen baita Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren jarraipen eta bermerako batzorde paritarioak hartutako erabakia, 2026rako soldata-taulak (+%1,5) onartzeari buruzkoa (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002235012003).

AURREKARIAK

Lehenengoa.— 2026ko ekainaren 15ean, Hitzarmen Kolektiboaren Batzorde Parekideak onartu duen aipatutako erabaki horri buruzko dokumentazioa aurkeztu da REGCON erregistroan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen baitira eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen) Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortu zuen 2. artikuluan, eta 7. artikuluan ezartzen du ezen sail horren eginkizunen artean sartzen dela lan-arloko legeek lan-harremanei buruz ezartzen dutena egikaritzea.

Ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, indarrean jarraituko dute Jaurlaritzako Lehendakaritzaren eta Jaurlaritzako sailen egitura eta egitekoak finkatzen dituzten arau organikoek. Horrenbestez, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 7/2021 Dekretuak (geroago uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuaren bidez aldatua) 10.1.i) artikuluan xedatzen duenez, Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen Kolektiboen, Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistro telematikoa zuzentzea eta kudeatzea, erregistro hori arautzen duen dekretuan eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusitakoari jarraikiz.

Bigarrena.— Sinatutako akordioak Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Hirugarrena.— Aurkeztu den erabakia inskribatu beharreko egintza bat da, maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Inskripzio-eskaera eta erantsitako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da eskaerak betetzen dituela legez eskatzen diren baldintzak; beraz, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroari eta gordailuari buruzko urtarilaren 25eko 9/2011 Dekretuak (2023ko otsailaren 14ko 20/2023 Dekretuaren bidez aldatuak) 9. artikuluan xedatutakoarekin, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Agindua ematea akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan inskribatu eta gordailutu dadin eta alderdiei jakinaraz dakien.

Bigarrena.— Agindua ematea akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 16a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.

ERABAKIA

Yolanda Zarandona Gutiérrezek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen 2024-2030 urteetarako hitzarmen kolektiboaren jarraipenerako eta bermerako batzorde paritarioak emandako baimena baliatuz, honako hau

Adierazten du: Batzorde horrek, 2026ko ekainaren 11n egindako bilkuran, jarraian azaltzen den gaia aztertu zuen, eta hau da hartu zuen erabakia, bileraren aktatik transkribatuta:

Planteatu den gaia: 2026. urteko soldata-taulak eguneratzea (% 1,5).

Batzordearen ebazpena: Batzordeak honako hau erabaki du aho batez:

«Lehenengoa.— Batzorde Paritarioko kideek aho batez onartu dituzte 2026ko soldata-taulak, indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren III. eranskinean aurreikusitako soldata-igoeren arabera, eta akta honen eranskinean jasota daude.

Bigarrena.— Emilia M. Málaga Pérez Lan Harremanen Kontseiluko presidenteari eskatzea lan-agintaritzari aurkeztu diezaiola 2026ko soldata-taulak onartzeko akordio hau, erregistratu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ofizialki argitara dadin.»

Eta hala ziurtatzen du, dagozkion ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2026ko ekainaren 12an.

ERANSKINA

2026. urteko soldata-etaulak.

(% 1,5eko igoera – 5/2026 Ebazpena, otsailaren 24koa, EAE).

2026. urteko soldata-etaula (euro)			Hilean (euro)	Orduaren balioa (euro)
I. maila	Oinarrizko soldata x 14	28.324,60	2.023,19	17,79
	Iraute-plusa x 14	468,02	33,43	0,29
II. maila	Oinarrizko soldata x 14	26.333,54	1.880,97	16,54
	Iraute-plusa x 14	468,02	33,43	0,29

2026. urteko soldata-etaula				
	I. maila		II. maila	
	Oinarrizko soldata (euro)	Iraute-plusa (euro)	Oinarrizko soldata (euro)	Iraute-plusa (euro)
Eguneko ordubete-Asteako 5 ordu	278,59	4,60	259,01	4,60
Eguneko 2 ordu-Asteako 10 ordu	557,19	9,21	518,02	9,21
Eguneko 3 ordu-Asteako 15 ordu	835,78	13,81	777,03	13,81
Eguneko lau ordu-Asteako 20 ordu	1.114,37	18,41	1.036,04	18,41
Eguneko bost ordu-Asteako 25 ordu	1.392,96	23,02	1.295,05	23,02
Eguneko 6 ordu-Asteako 30 ordu	1.671,56	27,62	1.554,06	27,62
Eguneko 7 ordu Asteako 35 ordu	1.950,15	32,22	1.813,06	32,22